

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

R 04/2011 ebazpena

23/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 21ean

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du “AAAAA, SL” entitateak (IFZ:.....) 2002ko urritik 2005eko abendura bitartean lan pertsonalaren etekinengatik egindako atxikipenak direla-eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazkaren inguruan.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko maiatzaren 9an planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordean maiatzaren 13an erregistratu zen idatzia dela medio.

Gatazka tramitera onartu ondoren, eta Estatuko Administrazioari haren berri eman eta gero, azken honek alegazioak aurkeztu zituen 2008ko urriaren 30ean Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren zuzendariak bidalitako idatziaren bidez. Alegazio horiek 2008ko azaroaren 4an erregistratu ziren Arbitraje Batzordean.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

Espedientea ikusgai jarri zitzairen bi administrazioei, eta horiek beste alegazio-idatzi batzuk aurkeztu zituzten, 2009ko martxoaren 16an ZAEAk (18an erregistratuak) eta 2009ko martxoaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiak (23an erregistratuak).

2. Gatazkaren espedientea osatzen duten idatziak eta erantsi zaizkien gainerako agiriak aztertuta, honako jarduketak jartzen dira agerian bi administrazioen aldetik:

- 1) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzak adostasun akta bat egin zion “AAAAAA, SL” entitateari –aurrerantzean entitatea– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenengatik XX.XXX.XX euro likidatzeko. 2002ko urritik 2005eko abendura bitartean egindako atxikipenak ziren horiek, “AAAAAA, SL” entitateak Gipuzkoan dituen lantokietako langileei aplikatuak, eta Estatuko Administrazioari ordainduak.
- 2) GFAk hainbat aldiz eskatu zion, idatziz, ZAEARI zenbateko hori ordaintzeko: 2007ko irailaren 25ean, urriaren 26an eta abenduaren 18an. Hor daude, baita ere, 2009ko martxoko idatzia eta agiri erantsiak.
- 3) 2008ko martxoaren 13ko Foru Aginduan, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak inhibitzeko errekerimendua egin zion Estatu Administrazioari lehen aipatutako atxikipenei dagokienez.
- 4) Errekerimendu horri erantzunez, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari bereziak 2008ko apirilaren 17an adierazi zuen “Foru Ogasun horrek bereganatu nahi duen eskumena -zerga bildu eta kobratzekoa– ez dagokiola Foru Ogasunean zuzenean hasitako espediente bati, ZAEAREN eta foru ogasun arteko akordio eta lan taldeetan aurreikusita dagoen moduan; ez da jaso dirua itzultzeko behar den eskaera formala, hain zuzen ere LAN TALDEAK ADMINISTRAZIO EZ-ESKUDUNEAN EGINDAKO DIRU SARREREI BURUZKO ONDORIOETAKO 5.3 apartatuan aipatua (zergapekoak hasitako prozedurak alde batera utzita)”.
- 5) 2008ko maiatzaren 8an GFAk ZAEARI zuzendutako idatzian, oker egindako diru sarrerek bueltatzeko eskatu zion Zerga Agentziaren Erakunde

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

Harremanetarako Eskualdeko Bulegoari. Idatzi hori posta elektronikoz bidali zitzaion ZAEAri, eta bertan hau esaten zen:

- “Berriz ere helarazten dizuegu 2008/09/25ean aurreneko aldiz egindako itzulketa eskaera.
- Berriz bidaltzen dizuegu eskaera hori behar bezala arrazoitzen duen dokumentazioa, Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak sinatutako eskaerarekin batera”.

Lehen eskaerari emandako data ez da zuzena urteari dagokionez. 2007ko irailaren 25 da data zuzena, eta DFAK ez du akats hori egiten 2009ko martxoaren 18ko alegazio-idatzian.

- 6) 2008ko maiatzaren 13an Arbitraje Batzordeari helarazitako idatzian, Gipuzkoako Foru Aldundiak oraingo gatazka hau planteatu zuen, eta bere prozeduran administrazio interesatuek gorago esandako jarduketak egin zituzten.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Gatazka planteatzeko idatzian, GFAK azaltzen du zertan oinarritzen den esateko auzian dauden lan pertsonalaren etekinen atxikipenak bildu eta kobratzeko eskumena berari dagokiola. Zehazki dio, atxikipenak izan zituzten langileek Gipuzkoan jarduten zutela haien lantokiak lurralde historiko horretan zeudelako. Alde horretatik, Ekonomia Itunak honako hau xedatzen du 7.bat artikuluan:

“Lurraldea dela-eta eskumena duen foru aldundiak exijituko ditu, bere araudiari jarraituz, lan etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak, honako etekinak direnean:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lan edo zerbitzuetatik datozenak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badira, zerbitzuak Euskal Autonomi Erkidegoan egiten direla ulertuko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

da, aurkako frogarik ezean, langilearen lantokia lurralde horretan kokatuta dagoenean.”

2. Hala ere, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak ez du eztabaidatzen GFAk zenbateko hori jasotzeko duen eskubidea; aitzitik, esplizituki aitortzen dio eskubide hori esaten duenean “inork ez duela zalantzan jartzen Foru Ogasunak exijitzen duen zenbatekoa zor ez zaionik”. ZAEAk alegatzen duena da Arbitraje Batzorde hau ez dela eskuduna GFAREN asmoa ezagutzeko, Estatuko Agentziaren arabera “ez baita gertatu Arbitraje Batzordearen araudian jasota dauden egoeretako bat ere hura eskudun izan dadin”. Haren iritziz, auzi honetan ez gaude Ekonomia Itunaren 66. artikulua Arbitraje Batzordeari aitortzen dizkion eskumen kasuetan (oker batean, idatziak 65. artikulua aipatzen du) “zeren eta ZAEAk ongi ikusten baitu nola aplikatu dituen kasu honetan Foru Ogasunak Ekonomia Itunaren Legeak 7. eta 8. artikuluetan aurreikusten dituen lotura puntuak, kasu honi aplikagarriak.”

3. Arbitraje Batzordearen eskumen ezari buruzko ZAEAREN alegazioa modu egokian aztertzeko, auzian dagoen gaia gogoratzea komeni da. 2008ko urriaren 30eko idatzian ZAEAk dioenez, “gatazka hau planteatzean Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio adieraz dezala ZAEAk ordaindu behar dizkiola Gipuzkoan kokatutako lantokietan jardun duten langileei ordaindutako lan etekinen atxikipenak, 2002ko laugarren hiruhilekotik 2005eko laugarren hiruhilekora bitartekoak, biak barne.”

Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia GFAREN asmoaren aurka agertu da tazituki, eta ez du erreklamaturako zenbatekoa ingresatu, Foru Administrazioak eskaera hori behin eta berriz egin arren. Eta ezezko tazitu horrek sorrarazi duen gatazka bete-betean sartzen da Arbitraje Batzorde honen eskumenetan. Izan ere, eskumen horiek ez dira mugatzen Ekonomia Itunean ezarrita dauden lotura puntuak interpretatzera, bere eginkizunetako bat baita “banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.” (Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) art.)

Horrela sortutako gatazka ez da desagertzen arrazoia, mamian, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola aitortzeagatik –halaxe aitortu du orain aurreneko aldiz ZAEAk

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

Aldundiak planteatutako gatazkari erantzun dionean–; ZAEAk zor eta onartzen duen zenbatekoa ordaindu arte hortxe segituko du gatazkak. GFaren eskubidea behin aitortuta, zentzuzkoena zen ZAEAk berehala ordaintzea erreklamatzeko zitzaion zenbatekoa, eta prozedura honetan Foru Aldundiaren asmoari amore ematea. Horrelakorik gertatu ez denez, Arbitraje Batzordeak eskumen osoa du oraindik Ekonomia Ituna aplikatze aldera Zuzenbidearen arabera bidezkoak diren deklarazioak egiteko.

4. Amore eman beharrean, erreklamaturako zenbatekoa ez ordaintzeko arrazoiak justifikatzen saiatu zen Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia, GFAk 2008ko martxoaren 13an bidalitako inhibizio errekerimenduari erantzun zionean (2008ko apirilaren 17koa da erantzuna). Horrela, Estatu Agentziak argudiatu zuen ordainketarik ez zuela egiten errekerimendu hori ez zelako itzulketaren eskaera formala, hain zuzen ere Lan Taldeak administrazio ez-eskudunean egindako diru sarrerei buruzko ondorioetan ezarritakoa. Berez, eztabaida ZAEAk funtsak itzultzeko uko tazituak ekarri duenez, errekerimendu hori egitea beharkizun bat zen gatazka hau Arbitraje Batzordeari planteatzeko (Arbitra Batzordearen Erregelamenduko 13.1 art.)

2008ko urriaren 30eko alegazio-idatzian, ZAEAk dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2008ko martxoaren 13ko errekerimendua “ezin dela hartu juridikoki inhibizio errekerimendutzat Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak 13. artikuluan aurreikusitako eran”, eta “haren edukia ikusita, dirua itzultzeko eskaera gisa kalifikatu zela, Lan Taldearen Ondorioetako 5.3 apartatuan aurreikusia.”

Azkenik, ZAEAk dio gatazka planteatzeak berekin ekarri duela “jarduketa administratiboak geldiaraztea eta, beraz, zenbatekoa itzultzeko eskaeraren tramitazioa etetea. Estatu Agentziaren arabera, “itzulketa tramitatzen ari zenean (eskaera 2008/05/05ean egin zuen Foru Ogasunak, bi administrazioek adostutakoari jarraiki, eta astebete geroago, 2008/05/12an, gatazka aurkeztu zitzaion Arbitraje Batzordeari), hasi ziren jarduketa administratiboak geldiarazten oraingo gatazka hau dela-eta.” Hala ere, ZAEari ahaztu zaio esatea zenbatekoa itzultzeko lehen eskaera 2007ko irailaren 25ean egin zela eta eskaera hori hainbat aldiz errepikatu zela urtean

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
23/2008	R4/2011	21/02/2011	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>PFEZ: lan-etekinen atxikipenak</i>

zehar. Estatu Agentziaren asmoa ez bazen zorra zalantzan jartzea, aski zuen eskaerari kasu egitea, administrazioen arteko harremanak oztopatu ez baizik eta erraztu nahi dituzten akordioetan oinarritutako argudio formalak aitzakiatzat erabili gabe.

Bestalde, duda egiten dugu gatazka planteatzeak zenbatekoa itzultzeko prozedura geldiarazi ote duen; gainera, mamiari dagokionez desadostasunik ez badago –Estatu Agentziak kasu honetan hala adierazi du–, auzia murriztuko litzateke adieraztera eskaera ez dela formulatu Lan Taldearen Ondorioetako 5.3 apartatuan jasotakoaren arabera. Kasu horretan, fede onez jokatuko badu, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak atzera egin beharko lukeela gatazkan. Gainera, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 15.1 artikulua araberak geldiaraztekoak diren jarduketak zergadunen aurrean zerga arloko ahalmenak erabiltzearekin lotuta daude. Horrelakoak izango lirateke, esate baterako, atxikipenak biltzeko jarduketak, baina ez ZAEAk orain mamiari dagokionez ontzat ematen duen akordioarekin bat egon litezkeenak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Adieraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola ordainaraztea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako lan etekinengatik 2002ko urritik 2005eko abendura bitartean, biak barne, “AAAAAA, SL” entitateak Gipuzkoan dituen lantokietako langileei egindako eta Estatuko Administrazioan sartu diren atxikipenak, XX.XXX.XX euro guztira.

Ebazpen hau betetzeko, ZAEAk berehala transferitu beharko dio zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundiari.